



Lilurarik ez.

Liluratzeko arrazoi gutxi dago bizi dugun eta berria ez dan egoera honetan. Nonahi ematen diren eta nolanhikoak diren dramen katalogoa amaigabea da.

Tronpatzerik ez.

Ez gaitezen engainatu. Ez gaitezen engainatzen utzi. Edo mugitzen gara gauzak aldatzeko, edo guk geuk ere, halan edo holan, hazten lagundu dugun zulo beltzak irentsiko gaitu.

Kontsolatzerik ez.

Atzera bueltarik ez duen egoerak harrapatzen gaituenean, zerk arinduko du gure ardura? Nor egongo da gure ondoan? Oraintxe da momentua ekiteko.

Gaurkoa egun ederra izan da, zalantzarik gabe. Memoria kolektiboaren alde jardutea beti da ederra; maite den horren alde egitea, izan urkoa, izan herria, izan natura bera... Idazle batek, bañe aspaldi baten esan zuen lez: "ez juzgatu gaurko eguna jaso duzun uztagatik, landatu duzun haziagatik baino".

Bai, gure kasuan memoriaren hazia landatu, ureztatu, zaindu egin behar dugu...denok, denon mesederako izango da eta.

Azken egunotan memoria (betidaniko guda zelaia) begiz jo dute karroñeroek. Interes ilunek bizikidetzaren aldeko eremua lokaztu nahi dute... euren memoria, euren errelatoa, euren biktima bakarrak inposatuz. Gogora institutoak badu horretan ardurarik. Gogorak jakin beharko luke memoria ezin dala bridatu, erreka batek lez beti bilatuko duelako bere bidea. Erreka bati ezin zaio lezio etikorik eman.

Gorren aurrean eta Aresti baliatuz:

Otsoen kontra, sikatearen kontra, lukurreriaren kontra... memoriaren etxea defendituko dugu.

Eskerrik asko